



0054801 A








Egitetxea

Zer egiten dugu?

Ezagutzia adituak ematen dituen erakundea gara, **elikadura** segururagoa, **osasuntsuagoa** eta **iraunkorragoa** lortzeko Euskadin. Euskadiko elikadura-ekosistemako eragile guztien arteko lankidetzaz ahalbidetuz.

b. ELIKAREN bisioa

2024 Ikuspegia:
Honelako erakundea izan nahi dugu








Erabilgarria eta beharrezkoa administrazioarako eta elikaketako langileentzat elikadura-politikak ezartzeko.	Berritzaillea eta elikagaien segurtasunaren kultura berria sustatzen duena.	Erreferentziakoa Euskadiko gizartearentzat elikaduraren arloan.	Pertsona konprometituek, efizienteekek eta motibatuak osatua.	Sozialki arduratsua, aurreratuak kudeaketan eta lankidetzaz- eta partaidetzaz-lanetan.
--	---	---	--	--



0054802 A

c. ELIKAREN BALIOAK



d. Helburu estrategikoak



0054805 A

- **Alerten jakinarazpena:** informazioa webgunean eta sare sozialetan organismo ofizialetan argitaratutako alerten eta produktuetak kentzeko 40 jakinarazpeni buruz. Lauhileko eta urteko txostenak egitea pentsuen eta elikagaien alerta sareen (RASFF) jakinarazpenei buruz.



A.1.3. Elikadurari buruzko ikerketa babestea, sustatzea eta nazioartekotzea

- **Euskal Ikerketa Plana 2022-2026 Baseritik Mahaira:**
 - Aholkularitza tekniko Baseritik Mahaira Ikerketako Koordinazio-mahaiaren Planaren eta Idazkaritzaren urteko hedapenerako.
 - Aholkularitza ikerketa-proiektuak zehazteko eta garatzeko. Ikerketa zentroek proiektuetan duten partaidetza koordinatzea 2023an, 12 proiektu. Proiektuen jarraipena egite eta emaitzak hedatzea, Eusko Jauriaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak finantzatutako (365.000€)
 - Ikerketako beharrak identifikatzea eta lehenestea. Ikerketa-beharrak proiektuetara helaraztea 2024: Eusko Jauriaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak finantzatutako **10 proiektu** (370.000 €).
 - Babesa eta laguntza **elikadurarekin lotutako 6 ikerketa-proiektuei**.
- **Elikadurarekin zerikusia duten nazioarteko sareetan parte hartzea:**
 - **FutureFoods:** Elikadura-sistema jasangarrietako lankidetzak. 2023ko uztailean onartutako proiektuaren proposamena idazten parte hartzea. Lankidetzak 2024ko ekainean hasiko da eta 10 urte iraungo du.
 - **Arrisku Kimikoak Ebaluatzeko OMIeren Sarea:** sarearen osoko bilkura Geneva, abenduaren 4tik 6ra bitartean, bazkideen arteko esperientziak eta etorkizuneko ekintzak partekatzeko.
 - **Horizon Europaren FoodRUS** berrikuntza-proiektua, elikadura-sistema zirkularrari buruzkoa, nekazaritzako elikakatean elikagaien galerak eta xahuketa murrizteko (ikus 1.3 atala).
 - **ERANET Co-fund SusAn** “Animalia ekoizpeneko sistema jasangarrien Europako Sarea”. CONNECTFARMS proiektua (Neikerren parte-hartzea): jarraipen-txostena berrikustea eta ebaluzio-txostena idaztea agentzia finantzatzaileekin.



0054806 A

A.2. ELIKADURAREN SEGURITASUNA HOBETZEKO PLANAK ETA PROGRAMAK:

Honako plan eta jarduketa-programa hauek sustatu eta dinamizatzen ditugu:

- **ENVAS3S proiektua:** BASQUE FOOD CLUSTERekin batera, Lehendakaritzaren mendeko ZTBpn integratutako Berrikuntza Funts batek finantzatutako proiektua abian jartzea, euskal enpresei elikagaien ontxi eta bilgarri seguru, jasangarri eta lehiakorrak lortzen laguntzeko.



- Gaur egun 323 eragile dituen ONTXI plataforma abian jartzea.
- Plataformaren topaketak antolatzea (ikus 2.2 atala).
- Sektorearen beharrak identifikatzea, 10 proiektu garatzeko.
- Jardunbide egokiak trukatzeko jardunaldiak antolatzea (ikus 2.2 atala).

- **Esnekien eta gaztagintzaren sektoreko elikagaien segurtasuna hobetzeko jarduketa-plan integrala:**

- Esnekien Ekoizpena Koordinatzeko Mahai Teknikoa eratzea (Osasun Publikoa, HAZI, Leartiker eta Elika), euskal esnegintzan elikagaien segurtasuna hobetzen aurrera egiteko. Elikagai tradizionaletarako salbuespenak eskatzeko prozeduraren adostasuna.
- Ikerketa-proiektuen koordinazioa eta jarraipena, esne gordinean dauden mikroorganismo patogenoei buruzko ezagutza areagotzeko eta euskal esnegintzaren sektorerara transferitu ahal izatea.

- **Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Planak:**

- Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana berrikustea eta eguneratzea: pertsonengan agerraldiak gertatzen direnean ustategietako jarduketan adostasuna.

- **Abeltzaintzaren arloko mikrobioen aurkako erresistentziei aurre egiteko jarduketa-programa (MAE EUSKADI 2017-2024):**

- Albaitaritzako Sendagaien Kontrol Ofizialerako Plan Koordinatua: koordinazio-bilerak eta emaitzak bateratzea.
- MAEen ikerketa bultzatzea: ikerketa-proiektuen jarraipena (Neiker, UPV/EHU).
- Ekoizpen-sektorea eta herritarrek sentibilizatzea: MAEei buruzko mikrositea.



0054807 A

○ **NEKKOP: Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2021-2025:**

- Lantaldeen (LT) aholkularitza eta idazkaritza, inplikaturako administrazioekin (Eusko Jauriaritza eta foru-aldundiak):
 - ✓ Koordinazio Talde Horizontala
 - ✓ Nekazaritzako Kontrol Ofizialeko Programen Higiena LT
 - ✓ Landare Osasuna LT
 - ✓ Erauzketa-arrantzaren eta Akuikulturaren Higiena LT
 - ✓ Abeltzaintzako Ustategietako Higiena eta Esnearen Ekoizpena LT
 - ✓ Animalien Ongizatea LT
 - ✓ Identifikazioa eta Erregistroa LT
- Lantaldeen (LT) esparruan, honako jarduera hauek egiten dira:
 - ✓ Kontrol ofizialeko programak, lan-prozedura normalizatuak eta ikuskapen-akten ereduak egitea eta eguneratzea.
 - ✓ Kontrol-programak gauzatzeko urteko txostena egitea.
 - ✓ Barne-auditoretzen ondoren, hobekuntza-planak garatzea eta abian jartzea.
 - ✓ Ikuskatzaileei zuzendutako prestatukuntza-plana egiten laguntzea.
- 2023. urte honetan, honako jarduera hauek nabarmendu dira:
 - ✓ Topaketa tekniko-politiko, planaren bilakaerari buruz hausnartzeko eta hobetzeko arloak identifikatzeko: martxoaren 16an (Zalditegiak).
 - ✓ AENOREK PVCOCAREN auditoretza-sistemarekiko independentea den azterketa, urriaren 16-19an.

A.3. ELIKAGAIEN XAHUKETAREN AURKAKO EUSKAL ESTRATEGIA: Elikagaien xahuketaren aurka egiteko Euskadiko Estrategiaren buru gara, eta, batik bat, honako esparru hauetan lan egiten dugu:

○ **Elikagaiak zenbatzea eta xahuketaren arrazoiak**

- Euskadiko elikagaiak eraldatzeko industrian elikagaien xahuketak zenbatzeko azterlana eguneratzea: balio handiagoa eman dakiekeen elikagai-koproduktuak identifikatzea eta zenbatzea.
 - Jatetxeetako eta xehekako saltokietako elikagaien xahuketa zenbatzea, Bilbaodendak proiektuaren esparruan.
 - Aiaraldeko Eskualdeko elikagai-operadoreen elikagaien xahuketa zenbatzea.
 - Bilbolko Atxuri ikastetxeko guraso-elkartearekin lankidetzan aritzea, eskola-jantokiko elikagaien xahuketa zenbatzeko.



0054808 A

- HHKorekin (Euskadiko Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa) lankidetzan aritzea elikagai-jatorriko hiri-hondakinak zenbatzeko metodologiarako.

○ **Sare solidarioei eta proiektuei laguntza ematea:** tokiko proiektu pilotu berrak sortzeko laguntza elikagaien soberakinak murrizteko eta erabiltzeko, soberazkoelikagaiak birbanatzeko...

- Bepiztu programa Aiaraldean: elikagaien xahuketa prebenitzeko 21 plan egitea eta elikagai-soberakinak biltzeko kanala diseinatzea.
- Proiektu pilotua Bilbaodendak-ekin: elikagaien xahuketa prebenitzeko 9 plan egitea eta Bilbao Circular Plataforma sortzea.
- Lankidetzeta-proiektua Arabako 2030 Aliantzarekin.
- Proiektu pilotua Atxuri ikastetxearekin: ikastetxeko familiek eskolako soberakinak berrerabiltzeko prozedura diseinatzea eta abian jartzea.
- Elikagaien xahuketari buruzko hezkuntza arloko lankidetzeta-proiektua Euskal Herriko Baserri Eskolekin (EHBE).

○ **Sentsibilizazioa eta komunikazioa:**

- Ostalaritzako eta jatetxeetako sektoreei eta xehekako merkataritzari zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina antolatzea eta hedatzea, bai eta euskal herritarrei ere: Janaria ez da botatzen 2023. Hiri-autobusetan, markesinetan, hiri-altzarietan eta sare sozialetan zabaldu da.
- Prestakuntza-materiala zabaltzea Euskadiko ostalaritza-eskoletara.
- Elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformaren bidez egindako jarduerai eta jardura interesgarriei buruzko informazioa.
- Janaria ez da botatzen kanpainarako webgune berria, ostalaritza zuzendutako prestakuntza-material berriei, www.zerodespiffarro.eus webgunea osatzeko.

○ **Ikerketa eta konponbideak:**

- Horizon Europaren FoodRUs berrikuntza-proiektuan parte hartzea, nekazaritzako elikakatean elikagaien galerak eta xahuketa murrizteko: 2023an prestakuntza-saioak antolatu ditugu (ikus 2.2 atala) eta barazkien inguruko Euskadi-Nafarroa proiektu pilotuan parte hartu dugu.



A.4. AUTONOMIA ERIKIDEGOKO ARAUDIA GARATZEKO ETA HEDATZEKO AHOIKULARITZA

○ Hurbileko salmentaren araudia:

- Euskadiko nekazaritzako elikagaien hurbileko salmentari buruzko Dekretua egin eta izapidetzea.
- Merkatuetan hurbileko salmentaren jarraipena egiteko koordinazio-protokoloa.

○ Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpenerako higiene-baldintzak egokitzea: lehen mailako produktuen kopuru txikiak zuzenean hornitzeko bete behar diren baldintzei buruzko aholkularitza:

- Arrautzen zuzeneko salmenta egiteko baldintzak garatzea (< 50 oilo errule).
- Eztiaren hurbileko salmenta egiteko bladintzak garatzea (<150 erlauntz).
- ✓ Erlezaintza paketea. Agintari eskudunekin batera zehaztea eskatu beharreko baldintzak eta baimen-eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agirien definizioa, batez ere erlezainen instalazioetan erle-produktuak ateratzeari eta ontziratzeari dagokionez.



○ Abeltzaintzako ustategiak antolatzeko araudia: abeltzaintzako ustategiek bete beharreko baldintzei buruzko aholkularitza:

- Abeltzaintzako ustategiak antolatzeko 515/2009 Dekretua aldatzen duen Dekretuaren zirriborroa egitea, agintari eskudunekin (Eusko Jaurilaritza eta foru-aldundiak) batera; eta izapidetzen hastea.
- Erle-ustategiak antolatzeko 33/2004 Dekretua aldatzen duen Dekretuaren zirriborroa egitea, agintari eskudunekin batera; eta izapidetzen hastea.
- Behi-azienda antolatzeko Errege Dekretuaren hedapena: irizpideak adostea ustategi erdiestentsiboetarako.

○ Abeltzaintzako ustategietan urgentziaz hiltzeko araudia: protokolo autonomikoa egungo araudira egokitzea.



0054810 A

A.5. ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE ESTRATEGIA ETA PLAN BATZUETAN PARTE HARTZEA: Modu aktiboan parte hartzen dugu beste erakunde batzuek gidatutako zenbait estrategietan; izan ere, horietan gure ezagutza eta esperientzia emateko gonbida jaso dugu:

○ Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa (GEPE II).

- Batzorde Kudeatzailean eta Elikadura eta Osasuna eta Sentsibilizaziorako lantaldeetan parte hartzea.

○ 2030 ZTBPlko RIS3 Espezializazio Adimendunaren estrategian parte hartzea:

- Ekimenean parte hartzea Katilun (nekararitzako elikagaien sektorerako eta landa eta itsas ingurunerako lankidetzako berrikuntzarako eremua) sartzearen bidez.
- Elikaduraren gidaritza-taldean parte hartzea, bai eta xede horretarako sortutako taldeetan ere:
 - ✓ Ekosistema segurua, osasuntsu eta jasangarriak (kolidergoa Neikerrekin)
 - ✓ Ontzi adimendunei buruzko talde berri bat (kolidergoa Euskadiko Elikagaien Klusterrarekin)
 - Parte-hartzea RIS3ren nazioartekotze-taldean.

○ Basque Country 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak zabaltea:

- Euskadin Agenda 2030 eta GJH hedatzeko, egikaritzeko eta martxan jartzeko aliantza eta sareetan parte hartzea.
 - ✓ Elikaduraren arloko jardunbide egokien gida (Basque Culinary Centerrek sustatua) egiteko LT, herritarrei GJHen alde egiten laguntzeko.
 - ✓ BBK Kuna 2030 kideak: aurrerakideak GJH12.
 - ✓ Araba 2030 aliantza: GJH 12 taldean parte hartzea.
 - ✓ Lehendakaritzak zuzendutako Gunea programan parte hartzea
- Gipuzkoako Azoken Sarea:
 - ✓ Landaolarekin batera Gipuzkoako Tokiko Azoken Sarea koordinatzea.
 - ✓ Tokiko Azoken Sarea sustatzeko ekintzak.
 - ✓ Plan estrategikoan identifikatutako ardatz estrategikoak garatzeko hiru lantalde desberdinetan parte hartzea: Gobernantza eta Komunikazioa.
 - ✓ Landaolak aurkeztutako proiektuen garapenean laguntzea

○ Elikadurarekin lotutako sail arteko eta erakunde arteko beste proiektu batzuetan parte hartzea:

- Tokiko produktuen kudeaketa eta txertatzea hobetzea euskal jantokietan (Hezkuntza Saila).



0054811 A

- Euskadi 2030 Osasun Plana. Jarraipenerako Batzorde Teknikoan (Osasun Saila) parte hartzea.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 eta Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plana 2024 (Ingurumen Saila).
- Euskadiko lurzorua babesteko 2030erako estrategia (Ihobe).
- Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia - KLIMA 2050 (Ingurumen Saila).
- Elikadura Behatokia: Euskadiko Elikakatearen Behatokia: Joerak eta Jasangarritasuna lantaldeak (Nekazaritza Sailburuordetza eta HAZI).
- “Etorbizuna Eraikiz” elikadura jasangarriaren misioa (Gipuzkoako Foru Aldundia).
- Elikadura osasungarri eta jasangarriari buruzko Kutxa Fundazioa proiektua (Landaola eta HAZI).

B) Elikakateko eragileei laguntza ematea

Aholkularitza-, prestakuntza- eta informazio-ekintzak egiten jarraitu dugu, Euskadiko elikaduraren balio-kateko kate-maila guztiei zuzenduta. Gainera, ekoizpen-sistema jasangarriagoa eta elikadura seguruagoa eta osasungarriagoa lortzeko bideratu dugu eta behar horri erantzuna eman diogu. Testuinguru horretan, 2023an, honako ekintza hauek nabarmentzen ditugu:

B.1. Interes-taldeen eskaerak

Gure interes-taldeen **150 eskaera** zehatzi eman zaie erantzuna, hurrengo proportzioetan banatuta:

- Elikatze-kateko operadoreak eta eragileak: 38%
- Administrazioa: 27%
- Hedabideak: 23%
- Zentro teknologikoak eta unibertsitateak: 8%
- Ikastetxeak: 3%
- Herritarrak: 1%

Eskaera gehienak (% 75) Elikadura Segurtasunarekin lotuta daude (lege-baldintzak, etiketak, elikadura-arrikuak, kontrol ofiziala, etab.), eta neurri txikiagoan Elikadura Jasangarriarekin (% 22) eta Osasungarriarekin (% 3).

Heltzen zaizkigun eskaerak honako tipologia hauen arabera sailkatu ahal ditugu:

- Informazio-eskaerak (% 52)
- Proiektuetan parte hartzeko eta laguntzeko eskaerak (% 15)



0054812 A

- Dokumentazioa egiteko edo berrikusteko eskaerak (% 13)
- Sektorearen beharrak edo arazoak bideratzeko eskaerak (% 8)
- Gure ohiko kateetan informazioa zabaltzeko eskaerak (% 7).
- Prestakuntza emateko eskaerak (% 5)

Gainera, hainbat foro dinamizatu ditugu sektoreko eragileekin, baserriik mahaira estrategia txertatzen laguntzeko eta elikagaien segurtasunaren kultura zabaltzeko:

- Esnekien eta gaztagintzaren sektoreko eragileekin aritzeko lantaldea, gaztaren eta esnekien elikadura-segurtasuna hobetzen lan egiteko.
- Ezti-ekoizleen elkarrekin aritzeko lantaldea, erlezaintza paketearen garapenean eta hedapenean lan egiteko.
- Euskal osasun-sisteman elikadura-sistema jasangarri baterako lurralde-estrategiarako lantaldea.
- Gipuzkoako landa-garapeneko elkarrekin eta Gipuzkoako Merkatuaren Sareko udalekin aritzeko lantaldeak.
- Bizkaiko landa-garapeneko elkarrekin aritzeko lantaldea.

B.2: Prestakuntza-ekintzak

Prestakuntzaren esparruan, elikadurari buruzko 3 prestakuntza-ekintza antolatatu ditugu; eta 100 pertsonak parte hartu dute, eta izan duten asebetetze-maila 8,7koa izan da.

Honako prestakuntza hauek nabarmentzen dira:

- Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa emaitzak transferitzeko X. Jardunaldia (Donostia, apirilak 20): 60 bertaratu, 8,3ko gogobetetze-maila.
- Ekonomia Zirkularreko jardunbide onak lehen sektorean eta eraldaketaren sektorean (telematika, maiatzak 26): 28 bertaratu, 8ko gogobetetze-maila.
- Elikagaien xahuketari buruzko prestakuntza-tailerra (Bilboko Merkataritza Ganbera, ekainak 25): 12 bertaratu, 10eko gogobetetze-maila.

Halaber, Elikak Getxoko (Bizkaia) udalerriko tokiko merkataritza-sareari zuzendutako prestakuntza dinamizatu du, elikadura jasangarriari eta osasungarriari buruz komunikatzeko eta sentikor bihurtzeko arrazoiak euren esku uzteko. Testuinguru horretan, eztabaida-talde bat antolatuz zen. Bertan, hizlariak hainbat gai jorratu zituzten, hala nola ekonomia zirkularra, hurbileko eta sasoko elikadura, ekoizpen ekologikoa, elikadura osasungarria eta





0054813 A

elikagaien xahuketa. Satea dinamiztatzear gain, ELIKA hizlari gisa parte hartu zuen ekonomia zirkularra eta elikagaien xahuketari buruzko gaietan.

Hezkuntza-komunitatea prestatzeko, honako jarduketa hauek nabarmentzen dira:

- **UPV/EHUko Elikagaien Zientzia eta Teknologikoak doktorego-tesi bat zuzentzea,** Eusko Jauriaritzak EAeko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko ematen dituen laguntzen programaren barruan, tratamendu fitosanitarioek erleengan eta erlezaintzako produktuetan duten inpaktuari buruzkoa.
- **Miguel de Unamuno BHI batxilergoko bi ikasle tutorizatzea,** B+ Batxilergoko ikerketa-programan, proposamen honen harira: Vitoria-Gasteizko nerabeen elikadura- eta bizi-ohitura osasungarriak.
- **Maeltu eta Kanpezu eskoletako 4 eta 11 urte bitarteko ikasleei zuzendutako elikadura jasangarriako prestakuntza diseinatzea,** IZKlko Landa-garapenerako elkartearen laguntzarekin.
- **Unibertsitatearen arloan elikadura jasangarriari eta osasungarriari buruzko hitzaldiak ematea:**
 - Bi hitzaldi Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean, ekonomia zirkularriari eta elikagaien xahuketari buruz – urtarrilak 31 eta otsailak 2.
 - Elikadura jasangarriari buruzko klase magistral bat Ekonomia Zirkularreko masterrean (UPV/EHU) – maiatzak 13.
 - Elikadura-burujabetzari eta elikagaien xahuketari buruzko hitzaldi bat UPV/EHUren UIK udako ikastaroetan – uztailak 4.
 - Bi hitzaldi Hezkuntza fakultatean (UPV/EHU) menu osasungarriei buruz (urriak 31) eta beste bi elikadura osasungarriari buruz (azaroak 6).

Gainera, Elikako langileak **beste erakunde batzuk antolatutako 26 jardunaldi edo ikastarotara** gonbidatu gaituzte, hizlari gisa aritzeko. Hizpide izandako gaiak nagusiki elikagaien segurtasuna eta elikadura jasangarriarekin lotutakoak izan dira. Halaber, azpimarratu behar dugu BBK Sasoiko programan parte hartu dugula, lan etapa amaitzen ari diren eta aktibo jarraitu nahi duten pertsonei zuzendutako programa bat. Bertan elikadura seguru, osasungarri eta jasangarriari, elikagaien etiketei eta xahuketa murrizteko jarraibideei buruzko hitzaldiak eskaintzen dira.

Bukatzeko, elikagaien segurtasunari eta elikadura osasungarriari lotutako **jardunaldiak** eta **ekitaldiak antolatzen dituzten 8 batzordetan** parte hartu dugu. Berezik, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:



0054814 A

- Berrikuntza-proiektuen emaitzak transferitzeko 1. Jardunaldia, Katilurekin koordinatuta.
- Food 4 Future: 2 saio moderatu ditugu (klima-aldaketa eta elikagaien xahuketa eta galerak murriztea)
- Pint of Science 2023: ekitaldia antolatu eta hizlariak bilatu ditugu.




○ FoodRUs Europako proiektua:

- Kooperazio web-mintegia, Lanikidetzarako eta Elkarlanerako Europar Sarearekin batera.
- Lan-saioa Europako Batzordearentzako, antzeko proiektuekin.
- ENVASS3 proiektua, ontzi eta bilgarrien berrikuntzari buruzkoa. Basque Food Cluster-ekin batera honako ekitaldi hauek antolatu ditugu:
 - ONTZI aurkezteko jardunaldia, Basque Food Packaging Innovation Hub-en, urriak 10.
 - Ontziei eta bilgarriei buruzko jardunbide egokiak partekatzeko jardunaldia, azaroak 15.
 - Ontzien eta bilgarrien berrikuntzarako topaketa Euskadin, abenduak 13.



- Alertei buruzko 8 txosten: Lauhileko bakoitzeko 6 txosten, pentsu eta elikagaien alerta-sareen jakinarazpenei (RASFF) buruzkoa, eta alerta horiek jasotzeko urtean 2 txosten.
- Liburuxka bat, ardoaren etiketatzaari buruzko araudian dauden berrikuntzak jasotzen dituena:



- Kontsumitzailearen webgunerako 4 artikulua:
 - ✓ Klima-aldaketaren eragina elikagaien segurtasunean
 - ✓ Gutxi egingako tortillen kontsumoaren segurtasuna
 - ✓ Kutsadura gurtzatuaren 10 adibide
 - ✓ Saltokian moztutako fruten segurtasuna
- Mantenugai kritikoei buruzko 2 material: azukrea eta edulkoratzaileak.



- Mantenugai kritikoei buruzko 2 material interaktibo: azukrea eta edulkoratzaileak.






0054817 A

- **Elikagaien xahuketa prebenitzeko 2 gida:** Xehekako merkataritzara eta ostalaritzara eta jatetxeetara zuzendua.
- **Elikagaien segurtasunari lotutako aholkuak emateko 11 bideo labur (EITBko A Bocados saioa), honako gai hauei buruzkoak:**
 - ✓ Azukrea urdaiazpiko onduan
 - ✓ Janaria kontserbatzea pikniketan
 - ✓ Supermerkatuan erosketak egiteko ordena
 - ✓ Kontserba-ontziak garbitzea
 - ✓ Gutxi egingdako patata-tortillen segurtasuna
 - ✓ Elikagaietan kukurutz koloragarria gehitzea
 - ✓ Elikagaien kontserbazioa udan
 - ✓ Baxera aire zabalean lehortzea
 - ✓ Frijitze-olioen iraupena
 - ✓ Lapiko beroak hozkailuan sartzea
 - ✓ Hozten ari diren haragiak eta arrainak kontserbatzeko denbora

“Janaria ez da botatzen” 2023 kanpaiaren esparruan honako material hauek prestatu ditugu:

- Ostalaritzako eta jatetxeetako eta xehekako merkataritzako profesionalentzako berariazko webgunea (www.lacomidanosetira.eus)
- **Herritarrentzako berariazko atalak** (kontsumitzeko eta erosteko ohiturak) zerodespifarro.eus webgunean.
- Sukaldaritzako profesionaleri zuzendutako **14 prestakuntza-bideo**ko (60 minutu) bilduma: Tolosako AMA jatetxeko Javier Rivero, Kanpezuko Areal Jatetxeko Edorta Lamo eta Portugaleteko Puente Colgante Boutique Hoteleko jatetxeko Zuriñe Garcia sukaldarien laguntzarekin egingdakoak.
- **4 bideo**, proiektu pilotuetan (Bilbao Dendak eta Berpiztu Aiaralde) parte hartu duten **hainbat profesionalen testigantzak jasotzen dituztenak**. Honako hauen lankidetzaz izan da: Eduardo Bizkarra (Bilboko Bizkarra okindegi eta gozotegia), Jessica Lopez (Luiaondoko Malato supermerkatua), Cristina Rodriguez (Eroskiko Jasangarritasun arloko arduraduna) eta Enrique Thate (La moderna urdaitegia).
- Ostalaritzan eta saltokietan **elikagaien xahuketa saihesteko mezuak** dituzten kartelak.
- Sare sozialetako mezuak.



Amaitzeko, hilabetero “ELIKABERRI” buletina kaleratzen da. Bertan azken hilabetean argitaratutako elikagaien segurtasunari eta elikadura osasungarri eta jasangarriari buruzko informazio garrantzitsua biltzen da, datozen ekitaldiekin batera. 2023ko azaroan 500. hileroko buletina argitaratu da. Egun 816 pertsonek eman dute izena buletinean eta hilabetero jasotzen dute.

C.2. Webgunea

Gure webgunean eskuragarri dagoen informazioa hobetzen jarraitzen dugu, antolaketa, formatua eta edukiarri dagokionez. Egiten ditugun produktu eta zerbitzu guztiak gure webgunean daude eskuragai, atal edo azpidomeinu desberdinetan.

Gaur egun elika.eus domeinuaren barruan hamaka azpidomeinu ditugu:

- Elikadura segurtasuna
 - Ikerketa
- Elikadura Osasungarria
- Elikadura Jasangarria
 - Zerodespiltarri
- Nekazaritza
- Abeltzaintza
- Animalien Elikadura
- Arrantza
- Eikagaien Industria
 - Elikagaiak etiketatzea





0054819 A



Gainera, dibulgaziozkoak diren formatuak ere baditugu, Elikagaien Segurtasunari buruzko informazioa herritarrei helarazteko; hala nola, **kontsumitzaileei zuzendutako webgunea, 2023an 23 argitalpen berri eta 8 eduki-eguneratze dituen**a, eta **Wiki-elika**, elikadura eta nutrizio arloko 1000 termino baino gehiago biltzen dituen**a**, bere webgunea gailu mugikorretara egokitzeko eguneratu duguna.

2023an mikrosite desberdinetan atal berriak sortu ditugu (azpidomeinuak) gaurkotasunari buruzko gaien berri emateko. Bertan, araudiaren egoerari eta gai bakoitzaren puntu garrantzitsuenei buruzko informazio eguneratua eskaintzen dugu:

- Elikadura segurtasuna: Ofizialeko Kontrola
- Elikadura Jasangarria: ontziak eta ontzien hondakinak
- Elikadura Osasungarria: mantenugai kritikoak (azukrea eta gatza)

ELIKAKO webgunek 2023an hilaibetan batez beste **56.742 erabiltzaileek bisitatu dituzte, eta guztira 1.036.624 orrialde** bistaratu dira. Euskadiko erabiltzaileek ikusitako orrialdeen ehunekoak % 13 da totalari dagokionez.

C.3. Sare sozialak

Badakigu sare sozialetan presente egotea garrantzitsua dela, eta horregatik profila dugu Facebook, Twitter, LinkedIn e Instagram sareetan. Bertan elikagaien segurtasunari eta elikadura osasungarriari eta jasangarriari buruzko informazioa eta albisteak zabaltzen ditugu. Youtubeko profila ere badugu eta noizean behin bideoak argitaratzen ditugu.



Sare

sozialetako bost profiletan **16.978 erabiltzaile** ditugu guztira.

C.4. Presentzia komunikabideetan

2023an, **ELIKAK** komunikabideetan **69 inpaktu** izan ditu. Nabarmentzekoa da prentsan, irratian eta telebistan izandako agerpena, **ONTZI** plataformaren aurkezpenaren eta elikagaien xahuketaren aurkako kanpainaren ondorioz, "janaria ez da botatzen 2023".



0054820 A



Era berean, Elikari laguntza eskatu zaio komunikabideetan eragina izan duten elikagaien segurtasunari buruzko gaiei informazioa emateko (esaterako, AESANeko Batzorde Zientifikoaren irizpen baten onarpena moztutako fruten segurtasunari buruz edo eskola-jantokietako janarian zizareak agertu izanari buruz).

Bestalde, Euskal Telebistako “A bocados” programaren lankidetzari esker, Elikako teknikariak telebistan agertu dira 11 aldiz, ikus-entuzleek elikagaien segurtasunari buruz egindako galderari erantzuteko (ikus C.1. atala).



Azkenik, gure materialaren 16 alpamen izan ditugu erreferentziatzko hainbat webgunetan (AINIAREN webgunean edo Consumer.es-en, besteak beste)



0054821 A

3. Dimentsio ekonomikoa

a. Balioa handitzea

ELIKAN konpromiso sendoa dugu egiten ditugun jardueren eta zerbitzuen balioa handitzeko, eta, ondorioz, ematen dizkiguten balibideak interes-taldeetara eta, bereziki, gizartera itzultzeko.

Gure lana gardentasun osoz egiten saiatzen gara eta Fundazioan ikuskatutako datu ekonomiko guztiak publiko egiten ditugu. Gainera, laneko balibideak kudeatzeko eraginkortasuna bilatuz, ahalik eta onura gehien eskuratzea eta kontrolatzea ahalbidetzen duten tresnak erabiltzen ditugu.

ELIKAREN jarduketa-esparrua osatzeko, Eusko Jauriaritzako Ogasun Sailako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak “gobernu arduratsurako gidan” eta “barne-kontrolaren funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburuan” ezarritako baldintzak daude.

Aurreko urteetan lortutako informazio-gardentasuna indartzea azpimarratzen dugu. Gardentasun-ataria dugu eta gure webgunean zuzeneko sarbidea dago. www.elika.eus

b. Emaitzen balantzea eta kontua

Gaur egun ELIKAKO kudeatzaile-taldeak jarduera-plan bat aurkeztu du eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak diru-kopuru bat ematen du. 2023an dirulaguntza ofizialeatik jaso gennuen hasierako aurrekontua 825.000,00 €-koa izan zen, eta 200.000,00 €-koa elikagaien xahuketaren aurkako estrategiari aurre egin ahal izateko. Jasotako guztizko zenbatekoa bien batura da, hau da, 1.025.000,00 €. Halaber, 150.000€ jaso ditugu Berpiztu Aiaraldea proiektutik.

Aurrekontu horri esker Patronatuak onartutako Urteko Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduerak egiten dira. Erika Fundazio gardena da; hileko gastuaren jarraipena egiten du hilero, eta ondoren Eusko Jauriaritzari bidaltzen zaio. Gainera, datu ekonomiko guztiak gure webgunean argitaratzen ditugu eta urtero ikuskaritza independente bat egiten dugu. Ikuskaritzaren txosten osoa gure webgunean argitaratzen da.

Jarraian aurkezten dira 2023an ikuskatutako kontuen balantzea eta izako urtearekiko alderaketa:



0054822 A

AKTIBOA	Oharrak	2022/12/31	2021/12/31
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		7.603	10.383
I.- <u>Ibilgetu ukierria</u>	5	<u>0</u>	<u>0</u>
Apkikazio infomatikoak		0	0
III.- <u>Ibilgetu materiala</u>	6	<u>0</u>	<u>0</u>
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala		0	0
VII.- <u>Bezeroak ez-korronteak</u>	11.1	<u>7.603</u>	<u>10.383</u>
B) AKTIBO KORRONTEA		397.409	525.888
IV.- <u>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</u>	8	<u>1.043</u>	<u>45.114</u>
Hainbat zordun		1.043	45.114
VIII.- <u>Eskudurua eta bestelako aktibo likido batokideak</u>		<u>396.366</u>	<u>480.774</u>
Duzaintza		396.366	480.774
AKTIBOA GUZTIRA		405.012	536.271



0054823 A

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharrak	2022/12/31	2021/12/31
A) ONDARE GARBIA			
A-1) Fondo propioak			
I.- Sotzerako zuzkidura	9	282.418	245.025
II.- Ereserbak		486.668	486.668
III.- Aurreko ekitaldierako emaitzak		6.800	6.800
IV.- Ekitaldiko soberakina		(248.443)	(288.617)
		37.393	40.174
B) PASIBO EZ KORRONTEA			
II.- Epe luzeko zontak			
Bestelako pasibo finantzarioak	11.1	16.510	49.780
		16.510	49.780
C) PASIBO KORRONTEA			
III.- Epe laburreko zontak			
Kreditu-erakundeetako zontak	8	34.516	34.368
Bestelako pasibo finantzarioak		1.247	2.277
IV.- Epe laburreko zontak taldeko eta elkarretutako erakundeekin	8	33.269	32.091
V.- Hartzeko dun konertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	8	0	34.765
VI.- Hartzeko dun konertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		71.568	172.333
Horritzatleak		29.452	133.563
Pertsonek (ordaintzeko dauden lanariak)		0	61
Administrazio Publikoetako bestelako zontak	10.1	42.116	38.709
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		405.012	536.271



0054824 A

4. Dimentsio soziala

a. Aditu-taldea

Pertsonak dira ELIKAKO politikaren ardatz Nagusia. Horregatik pertsonen kudeaketarako hainbat ardatz hartzen ditugu kontuan: familia eta lana bateragarri egitea, aukera-berdintasuna, lan-hazkundera sustatzea eta laneko osasuna eta segurtasuna.

Gaur egun ELIKAKO pertsona-taldea eremu desberdineko hamar profesional osatzen dute (elikagaien teknologia, biologia, albaritaritza, agronomia-ingeniaritza, enpresen administrazioa eta zuzendaritza eta zuzenbidea). Langile guztiak dute esperientzia handia elikagaien segurtasunean, elikakateko maila guztietan.

Hurrengo taulan Fundazioan lan egiten duten pertsonen buruzko informazio orokorra ikusi daiteke:

ADINA	35-49 urte 50-55 urte	5 5
GENEROA	Gizonak Emakumeak	3 7
IKASKETA-MAILA	Goi-mailako tituludunak	10
KATEGORIA PROFESIONALA	Zuzendariak	1
	Teknikariak	9
	Administrariak	0
ANTZINATASUNA	Zaharrena	22 urte
KONTRATU MOTAK	Batez bestekoa	14 urte
	Mugagabea	% 90
PLANTILLAKO TXANDAKATZEA	Mugagabeak ordezkatzea	% 10
	Altak	0
	Bajak	0

Gure langileekiko lan- eta giza-konpromiso irmoa dugu. Une oro pertsonen gogobetetzea areagotzea dugu helburu, eta horretarako aurrera eramaten ditugu proiektu berritzaileen dinamizazioa, fundazioko pertsona guztien prestakuntza eta gaitasunak garatzea.

2023an Elikako langileek **44 prestakuntza- eta gaitakuntza-jarduera** egin dituzte gaitasun teknikoetan eta giza gaitasunetan eta pertsonen artekoetan. Batez bestez **persona bakoitzak 19 prestakuntza-ordu** egin ditu.



0054825 A



PRESTAKUNTZA	2021	2022	2023
Prestakuntza jasotzen duten langileen %	100	100	100
Prestakuntza-ordurak guztira	317	297	170
Pertsona bakoitzeko prestakuntza-ordurak	35	33	19
Prestakuntzaren eraginkortasunari buruzko balorazio globala (100 puntu guztira)	77,1	75,5	78,4

ELIKAKo langileen lan-baldintzak urtero finkatzen dira hitzarmen kolektibo propioaren bidez 2023-2024 urteetarako, eta langile guztiari eragiten die. Hitzarmena urtero eguneratzen da automatikoki, aldeetako batek behar bezala salatzen ez bada.

Gainera, 2023an Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoen telelanari buruzko uztailaren 18ko 113/2023 Dekretura egokitu gara, eta bertarako sarbidea antolatu dugu Elikako langile guztientzat.

2023an Elikako langileen gastuetarako erakundearen aurrekontu osoaren % 62a erabili da.

LANGILEEN GASTUAK	2021	2022	2023
ELIKAKO langileen gastuak	583.404	637.856	6666.920
Gastu totalaren %	% 59	% 62	% 62

Laneko osasun eta segurtasun baldintza bereziak bermatzeko, bereziki laneko arriskuei dagokionez, Laneko Arriskuen Prebentzio Plana (PRL) egin dugu, eta horretarako prebentziorako kanpoko zerbitzu baten laguntza jaso dugu. Gainera, osasun-zainketa zerbitzua dugu, eta horri esker pertsona guztiak osasun-azterketa bat egin behar dute urtero, horrela nahi badute.

LANGILEAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	2021	2022	2023
Laneko arriskuen prebentzioaren arloan (oinarizko maila) prestakuntza duten langileen %	100	100	100
Osasunaren eta segurtasunaren arloan egindako inbertsioa	2.049,03€	2.494,52€	2.965,59€

Era berean, **etika-kodea** eguneratu dugu. Bertan lan-arloko pertsonen arteko harremanetarako balioak sustatzen dira, informazioa eman eta zabaltzeko eta interes-taldeeekin izan beharreko harremanetakoak.

Pertsonak kudeatzeko sistemak Euskaliten sari bat jaso zuen 2021ean, eta, zehazki, Pertsonen Kudeaketa Aurreratuaren Euskadiko Saria “pertsonak eta talentua, gure asmakizun onena” izeneko *role model* praktikan, honako hauek azpimarratzen: lidergo



0054826 A

partekatua, pertsona guztien inplikazio osoa erakundearen estrategian eta langileen motibazio-maila handia.

b. Gizartea eta ingurunea

2023an gizartearekiko konpromisoarekin aurrera egin dugu. Gure erakunde-kulturaren oinarriak kudeaketa eraginkorra, ardurtsua eta gardena dira.

ELIKA, erakunde publikoa den heinean, zerbitzurako bokazioa du. Horren erakusgarri dira inguruneari eta gizarteari onura ekartzen dioten honako gaitasun giltzarri hauek:

- Gure erakunde-kultura.
- Jakintza sozializatzea.
- Elkartasuna.
- Eredugarritasuna.
- Ingurunearekiko konpromisoa.

Erakunde aurreratua gara, eta, hortaz, gure ingurune soziala (kokatzen eta elkarren artean erlazionatzen garen eremua) osatzen duten entitateen garapena garrantzitsua da. Hortaz, aktiboki parte hartu nahi dugu gure gaitasunekin bat etorritik lan soziala eraginkorragoa egin dezakegun jardueretan.

Testuinguru honetan, gure esperientzia partekatzen dugu beste erakunde batzuei haien kudeaketan laguntzeko. 2023an, hainbat aldiz informazioa eta gure kudeaketa-ereduak beste erakunde batzuei eman diegu, adibide batzuk aipatzearren:

- Euskalitek gure pertsonen prozesuari buruzko informazioa eskatu zigun, barne-kudeaketan izan zitzakeen aplikazioak ikusteko.
- Hazi Fundazioak gure barneko prestakuntzaren kudeaketari buruzko prozedura eskatu zigun.
- Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak kudeaketa aurreratuko formatuak eta ereduak erabiltzea eskatu zigun, Kudeaketa Publiko Aurreraturako Jardunbide Egokien Gidan erreferentzia gisa sartzeko.

Gizartearekiko dugun konpromisoa haratago eramanda, jakintza sozializatzen dugu, barruan eta kanpoan. Gure webgunearen eta sare sozialen bitartez hedatzen dugu, eta, era berean, gaurkotasuneko gaiei buruzko prestakuntzak eta jardunaldiak antolatzen ditugu, eta prestakuntza-materialak sortzen ditugu elikagaien segurtasunari lotutako hainbat alderdi zabaltzeko, bai profesionalentzat, bai gizartearentzat, oro har.



Gainera, gure webguneko edukiak **WIS** (Interes sanitarioko webgunea) egiaztagiria lortu dute. Egiaztagiri hau webgunearen edukia egiazkoa eta kalitatezkoa dela ziurtatzen du. 2023an egiaztagiri hau berritu dugu.

Berdintasunarekiko konpromiso irmoa daukagu, eta, horregatik parte hartzen dugu Berdintasunaren aldeko Erakunde Publikoen Sarean eta Arkautiko Nekazaritzako Elkagaien Campuselko Berdintasun Foroan Alde horretatik, parte hartu dugu martxoaren 8ari, otsailaren 11ri (Zientziako Emakume eta Nesken Eguna) eta azaroaren 25ari (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna) buruzko ekitaldietan, eta gure gaitzespena adierazi dugu sare sozialetako argitalpenetan.

Euskalduntzeari dagokionez, **gure erakundeak % 90eko potentziala du euskararen erabileran**. Euskara erabiltzen duten taldeak edo inguruneak ditugu eta Euskaraldian parte hartu ohi dugu. 2023an euskaraz osorik egin dira ponentzien % 8 eta osorik erantzun dira eskaeren % 26a. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako taldeetan ere parte hartzen dugu, erakunde publikoen hizkuntza-irizpideen ezarpena berrikusteko. Aurten, Euskaraldiaren 3. edizioaren harira, Arigune izan gara.

Datuak babesteko Europako araudi berriari egokitzeko (**Datuak Babesteko Araudi Orokorra**) hobekuntzak egiten jarraitzen dugu horri dagokion uneko araudia betetzeko. Aurten, Pribatutasun Batzordea sortu dugu, egokitzapenean aurrera egiteko, eta hilero jarraipen-bilerak egiten ditugu. Elikako pertsona guztientzako prestakuntza arlo honetan ere antolatu dugu eta Segurtasun Informatikoko Jardunbide Egokien Kodea idatzi dugu.

5. Ingurumen-dimentsioa

a. Ingurumenarekiko konpromisoa

ELIKAKO Ingurumen-politikak bi oinarri ditu:

- **Gure jardueren ingurumen-eragina gutxitzea.** Horretarako gure prozesuetarako baliabide naturalen, energia-baliabideen eta lehengaien kontsumoa gutxitu dugu eta hondakin gutxiago produzitu ditugu.
 - **Informazio, prestakuntza eta lan-giro egokia eskaintzea,** gure langileak erakundearen ingurumen-helburuak lortzeko prozesuan parte har dezaten.

ELIKAKO jarduerak ez du eragin handirik ingurunean, baina hondakinak sortzen ditugunez ahalik eta gehien murrizten eta ahal den gutxietan berrerabiltzeko eta birziklatzeko praktikak aplikatzen saiatzen gara.



0054828 A

“Erosketa berdea” irizpideak ere baditugu, ingurumenearekiko arduratsuak diren hornitzaileak eta birziklatutako produktiak lortzeko. Horretarako **eredu** izaten saiatzen gara eta gure hornitzaileei eskatzen diegu kontratazio agiriariako baldintzak bete ditzaten. Horrela, guk egiten dugun bezala **ingurumenearekiko konpromisoa** agertzeko eta legeria, langileen eskubideak, giza eskubideak eta haurren eskubideak urratzen ez ditzutela bermatzeko.

b. Ingurumen-jarduna

ELIKAREN egoitza Arkaitiko Parke Teknologikoan kokatuta dago. Bertan hondakinen gaikako bilketa egiten da, eta, horri esker, kasu hauetan 'ziklo garbi' gomendagarriena betetzen dela bermatzen da.

Baliabideen (ura eta energia, adibidez) kontsumoa kontrolatzen eta arrazionalizatzen dugu. Orain dela urte batzuk berokuntza sistemako galdara aldatu eta biomasako galdara jarri zen. Harrezkeroztik Euskadiko zura erabiltzen da bulegoak neguan zehar berotzeko. Ordenagailu pantailak LED motakoak dira orain, eta horrela elektrizitate-kontsumoa murriztea lortu dugu.

Paperaren kontsumoari dagokionez, erabiltzen ditugu orrien gramajea aldatu dugu (80 g izatetik 75 g izatera). Gainera, paperaren egingako argitalpen kopurua murriztu dugu (digitalak dira orain), eta baita jardunaldietan edo ikastaroetan banatzen dugun materiala ere. Paperaren kontsumoa murrizteko inprimatze-jardunbide egokiak ere jarraitzen ditugu, eta inprimatzeko ekipo eraginkorra erosi dugu. Horri esker toner-kontsumo txikiagoa lortu dugu.

Gure ingurumen-konpromisoa hobetzeko helburuarekin, 2023an gure eguneroko jardueran praktikan jartzeko ideiak bildu ditugu. Besteak beste, ideia hauek bildu ditugu:

- Teknologia erostean, gailu berregokituak aukeratzea.
- Birziklatutako papera erabiltzea barneko dokumentuetan.
- Behin erabiltzeko bulegoko materiala ekiditea.

6. Etorbizuneko erronkak

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Euskadin elikadura-politikak zabaltzeko eta zehazteko elementu erabilgarria eta beharrezkoa izatea.



0054829 A



- Elikagaien segurtasunaren kultura txertatzea eta sektoreari laguntzea nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioan.
- Euskal gizartea ahalduntzea elikagaien inguruan erabakiak hartzeko.
- Antolaketa-eredu diferentzial aurreratu eta berritzailea sustatzea.

HELBURU EKONOMIKOAK

- Gure produktuen eta zerbitzuen balioa handitzea gizarteari ematen dizkigun balabideak bueltatzeko.
- Gutxieneko ezinbesteko finantzaketa finkatzea.
- Ingurune sozioekonomiko aldakor batera egokitzeko gaitasuna mantentzea.
- Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean cash flow positiboa mantentzea.

HELBURU SOZIALAK


- Elikadurari buruzko informazio-erudiak zabaltzea eta zabaldutako informazioaren kalitatea mantentzea.
- Fundazioko langileak zaintzea jarduketa hauen bidez: lan-hazkundera sustatzea, laneko osasuna eta segurtasuna, aukera berdintasuna eta familia eta lana bateragarri egitea.
- Berdintasunari eta euskararen erabilerrari lotutako politikak ezartzen jarraitzea.
- Lortu dugun interes taldeen aintzatespen maila mantentzea.

INGURUMEN HELBURUAK

- Gure jardueren ingurumen-eragina gutxitzea.
- Elektrizitate-, ur- eta paper-kontsumoak gutxitzea.
- Lekualdatzek eragindako isuriak gutxitzea.
- Erosketa berdeko irizpideak erabiltzea eta gure hornitzaileei ingurumen-ardura eskatzea.

MEMORIA RSC Y ACTIVIDAD ELIKA Fundazioa

- 2023 -





Índice

A. Carta de la Dirección

B. Resumen del año 2023

1. Naturaleza de la Fundación ELIKA

- a. Política RSC
- b. Órganos de Gobierno
- c. Alianzas y Grupos de interés
- d. Procesos y Áreas de conocimiento
- e. Modelo de Gestión Avanzada

2. Cultura Estratégica

- a. Misión
- b. Visión
- c. Valores
- d. Objetivos Estratégicos
- e. Resumen de actividades

3. Dimensión Económica

- a. Incrementar Valor
- b. Balance y Cuentas

4. Dimensión Social

- a. Equipo profesional
- b. Sociedad y entorno

5. Dimensión Ambiental

- a. Compromiso con el Medio Ambiente
- b. Desempeño ambiental

6. Retos de futuro



0054833 A

B. RESUMEN DEL AÑO 2023

Nos encontramos en el tercer año de la **Estrategia del período 2021-2024**, cuyos Objetivos Estratégicos están completamente alineados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de las Naciones Unidas, así como con la estrategia “One Health / Una sola salud” y la Estrategia Europea de la Granja a la Mesa incluida en el Pacto Verde Europeo. Por ende, nuestra Estrategia está igualmente enmarcada con la Agenda Vasca 2030, el Plan estratégico de Gastronomía y Alimentación y el Basque Green Deal.

Los pilares de nuestra cultura organizacional son la **gestión eficiente, responsable y transparente** de la Fundación, a la vez que tomamos parte activa en aquellas actividades en las que podamos realizar una labor social eficaz en consonancia con nuestras capacidades:

- **Dimensión económica:** tenemos un firme compromiso con la gestión eficiente de los recursos que se nos asignan y con la transparencia. A través de nuestro portal web, ponemos a disposición de la ciudadanía todos los datos económicos, mediante la publicación del balance de cuentas auditado anualmente de manera independiente.
- **Dimensión Social:** como fundación pública, tenemos vocación de servicio a la sociedad en general, a la vez que cuidamos a nuestras personas, no solo en el ámbito laboral sino también en el social. Del mismo modo, estamos firmemente comprometidos con el fomento de la igualdad y del uso del euskera por parte de todas nuestras personas trabajadoras. Participamos activamente en la promoción e implementación de las ODS (Agenda Basque Country 2030) en las organizaciones y en la sociedad vasca.
- **Dimensión ambiental:** hacemos un especial esfuerzo en minimizar el impacto de nuestras actividades, mediante la reducción del consumo de recursos necesarios para nuestra actividad. Secundamos los criterios de compra verde y lo exigimos igualmente a nuestros proveedores. Por otro lado, reducimos al máximo la generación de residuos y reutilizamos o reciclamos los que generamos.

En lo que respecta a la **actividad de la Fundación de este último año 2023**, en el ámbito de nuestros servicios de asesoramiento a la administración vasca y al sector agroalimentario y de nuestros productos de formación e información, podemos destacar las siguientes acciones:

- **Asesoramiento científico y técnico a la administración vasca** en el despliegue de las políticas en Seguridad Alimentaria: este año cabe destacar la gestión de la participación del Gobierno Vasco en el partenariado europeo de sistemas alimentarios sostenibles y el asesoramiento en la gestión y comunicación de las alertas relacionadas con la influenza aviár en aves silvestres (revisión del plan de vigilancia y control y elaboración de un plan de contingencia) y con la enfermedad hemorrágica epizootica en ganado vacuno. También